

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernua Ebro ibaiaren ubidearen lubetek duten erantzunaren zain dago Castejonetik beherako uretan

Barcina Lehendakaria Nekazaritza Ministerioarekin harremanetan jarri da gaur goizean uholde-episodio horrek kaltetutako udalerrriak hondamen-eremutzat har ditzan

Lunes, 10 de junio de 2013

Nafarroako Gobernua Ebro ibaiaren ubidearen lubetek duten erantzunaren zain dago Castejonetik beherako uretan. Udalerrri horretan ur-goraldi handiena 15:00k eta 16:00ak alderako espero zen, 2.000 m³/s-ko gehieneko emarira helduz, urtarrilean izandako uhaldia baino % 10 gutxiago.

Nolanahi ere, udalerrri horretako Ebro ibaiaren ubidean eta beherako uretan dauden lubetak Ebroko Konfederazio Hidrografikoak (CHE) konpondu ez dituen erabat, uhaldiak eragin ditzakeen kalteak lubeta horiek duten erantzunaren arabera izango da. Hala ere, ez da espero kalterik egongo denik hiriguneetan edo jendea bizia den lekuetan, baizik eta landatutako nekazaritzako guneeetan eta errepideetan edo beste zenbait azpiegituratan.

Hala adierazi da Uholdeen Larrialdi Planaren aholkularitza-batzordeak egin duen bilkuran; bilkura hori gaur arratsaldean, lehen orduan egin da Nafarroako Larrialdi Agentziaren (NLA) egoitzan Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilari Javier Morrás buru zela.

Bileran aurkeztutako ereduaren arabera, Ebroren gehieneko emaria Tuteran parean 21:00ak eta 22:00ak aldera izango da, eta gauerdian aldean beheko uretan dauden udalerrietan. Foru Komunitateko ibaien eguneratutako emaria [Nafarroako Gobernuaren uraren webgunean](#) kontsulta daiteke.

Arga ibaiaren emaria, Funesen parean, 13:00ak aldera 940 m³/s-ko egonkortu da, eta ez du gorabehera garrantzitsurik eragin hirigunean eta laborantzako zenbait lur nahiz Miranda Argako errepidea (NA-6140) urak hartu ditu. Gainera, Funesko haur-eskolak eta ikastetxe publikoak ez dituzte gaur goizean atek ireki prebentzio-neurri modura; 219 ikasle kaltetuta geratu dira.



Iruñeko Arrotxapea auzoaren irudia, atzo, Arga ibaiko urak hartuta.

Bestalde, Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioarekin harremanetan jarri gaur goizean uholde-episodio horrek kaltetutako udalerriak hondamen-eremu har ditzaten eta, hala, kasu hauetarako Estatuak banatzen dituen laguntza-mekanismoak balia ahal ditzaten.

Halaber, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua lanean ari da azken uholde-episodio horretara zabal daitezen aurreko uhaldietarako aurreikusitako nekazaritza-azpiegituretan izandako kalteei emandako laguntzak, Foru Komunitateko hainbat udalerrri kaltetu zituztenak.

Atzo egindako jarduketan balorazioa

Uholdeen Larrialdi Planaren aholkularitza-batzordeak egindako bilkuraren ondoren, Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariak adierazi du atzo meteorologia-iragarpenaren ereduak huts egin zuela, bestela erakunde nafarrek prebentziozko beste neurri batzuk hartuko baitzituen.

Nolanahi ere, Morrás kontseilariak Nafarroako Gobernuak batera egindako lana azpimarratu du, Nafarroako Larrialdi Agentzia eta Foruzaingoaren eta Iruñerriko udalen eta bertako udaltzaingoaren bidez, Estatuko beste segurtasun indarrekin elkarlanean. Alde horretatik, Morrásen larrialdi-zerbitzuek atzo egindako lana zoriondu du eta onartu du haiek egindako lanari esker, ez dela kalte pertsonalik izan.

Morrásen ere nabarmendu du atzo Iruñerrian izandako uholdeak 100 urteko itzulera-aldi bati dagozkiola, hau da, iragarpen-ereduen arabera tamaina horretako zerbait mendean behin bakarrik gertatzen dela. Zehatzago esanda, Ultzama ibaiak Olaben estazio horrek gehienez ere neur dezakeen 300 m/s-ko langa gainditu zuen, hau da, 100 urte baino gehiagoko itzulera-aldiko uholdeekin bat datorrena (326 m³/s); Arga ibaia Huarten ere, Argaren ubidean, itzulera-aldi horri dagokion neurria ere heldu zen (184 m³/s), eta horrek azaltzen du aurrez batutako emarietatik Iruñetik pasatzean orain arte neurtutako uholde handienak eragitea.

Nolanahi ere, Nafarroako hiriburutik beherako uretan, Argak kalte gutxiago eragin zuen jarrera izan zuen, Elorz (2 urteko itzulera-aldiari dagokion neurrian, 85 m³/s) eta Arakil (300 m³/s inguru Etxarrenen, 10 urteko itzulera-aldia) haren ibaiadarren ekarpen urriagoatik bereziki, biak ala biak iragan urtarrileko uholdeetan zuten emariaren oso azpitik. Horrek ekarri du itzulerak Argaren erdialdean eta azkenaldian aurtengo urtarrilekoak baino txikiagoak izatea, Iruñerrian gertatu ez den bezala.

NLAren artapenak eta errepideen egoera

112-SOS Navarraren Larrialdietarako Kudeaketa Zentroak aipatu du uholdeekin zerikusia zuten 1.600 dei zenbatu zirela atzo. Bestalde, Suhiltzaile Parke Nagusiak, Cordovillan (Galar), eta Iruñeko hiriko parkeak gaur goizean garbiketako eta uda ateratzeko lanak egin dituzte uhaldia kaltetutako Iruñerriko udalerrietan.

Sustapen Departamentuak iragan ostiraleko, ekainak 7, 20:40etik gaur, ekainak 10, asteleheneko 06:00ak arte 146 gorabehera artatu ditu guztira (ostiralean 7, larunbatean 8, igandean 128 eta gaur 5, 06:00ak arte), eta 68 errepide kaltetu dira unereren batean, gehienak ur-putzuengatik edo uholdeengatik Iruñerriko eta Erdialdeko guneeetan.

15:00etan sare nagusian itxita daude, N-121-A errepidea (Iruña-Behobia), Belateko tunelen parean, eta N-113 (Iruña-Madril) Ebro ibaiak gainezka egin duelako Castejon parean (75. KP). Foru Komunitateko errepide-sarearen eguneratutako egoera honako helbide honetan kontsulta daiteke:

<http://incidenciascarreteras.navarra.es>.

Belate, gorabehera nagusia

Jakina denez, sarearen gorabehera nagusia Iruña-Behobia errepidea moztea izan da Belateko tunelaren hegoaldeko ahotik gertu; materiala etengabe mugitzen zela eta bi noranzkoetan moztu zen eta zirkulazioa NA-1210 errepidetik (Belateko mendatea) bideratu.

N-121-A errepideko 27,5 KPan izandako lur-irristatzea atzo, igandea, gertatu zen 08:45ean, eta

bidea 09:16an moztu zen. 09:45ean lurra erori zen zonaldeko zaintza-zerbitzuak galtzadara iristen zen lur- eta lokatz-mugimendu gehiago iragarri zuen, balizatzeko elementuetaraino helduz.

Belateko tuneletik gertu N-121-A errepideari eragiten dioten lurra kentzeko lanetan ari den enpresari 16:05ean deitu zitzaion galtzada garbi zezan eta, hala, premiazko garraioa pasa zedin. Nolanahi ere, 40 minutu geroago material-mugimendu handi bat irristatu zen eta, horren ondorioz, galtzada guztia estali eta babesteko eta balizatzeko elementu guztiak mugitu zituen.

Aipatu beharra dago mikropiloteen bidezko egonkortze-lanek aurreikusitako erritmoan jarraitzen dutela; izan ere, goiko aldea ez da kaltetu eta irristatu den materiala, duen ur pilagatik ia likidoa dena, datozen egunotan kenduko da eguraldiak hori egiten uzten badu.

Etxauriko Animaliak Babesteko Zentroa

Aldiz, Etxauriko Animaliak Babesteko Zentrotik atzo ebakuatu ziren ehun txakurrak beraien instalazioetara bueltatzen hasi dira, Arga ibaiaren emaria lehengoratzten ari baita udalerrri honetatik pasatzean.

Nafarroako Larrialdi Agentziaren alerta jaso ostean, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Institutuak eta zentro horretako kudeaketa-arduradunek, albatariak barne, animaliak ebakutzeko lanak koordinatu zituzten. Zentroan zeuden ehun txakurrak bertatik atera ziren haietako inork ere minik hartu gabe eta Arga ibaiaren uhaldiaren puntu gorena Etxaurira heldu aurretik.